

**24/2024 TXOSTENA, URRIAREN 18koa, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURARENA.****XEDEA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2025. URTEKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA.****I.- AURREKARIAK.**

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 40. artikulua honako hau dio: "Euskal Herriak autonomia-ogasuna izango du bere eskumenak egoki gauzatu eta finantzatzeko".

Halaber, Estatutuaren 44. artikuluan esaten den bezala, Aurrekontu Orokorrek, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren osagai diren aldetik, jarduera publiko orokorraren diru-sarrera eta gastuak hartuko dituzte, eta Eusko Jaurlaritzak prestatuko ditu eta Eusko Legebiltzarrak onartuko, berak finkatuko dituen arauekin bat.

Bestalde, aurrekontuak egin eta kudeatzeko prozedura ogasun horren berezko gaietako bat da, hala xedatu baitu, 1.2.b) artikuluan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onarturikoak (aurrerantzean, Antolarauei buruzko Legea).

Aurrekoarekin lotuta, horrela daude definituta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 5.1 artikuluan: "*Euskal Autonomia Erkidegoak ekonomiako edo aurrekontuetako ekitaldi bakoitzean egin behar duen ekonomi jarduera programa baten bidez zuzenduta dago, eta programa hori osatzen duten erabakiak batu ondoren, adierazpide formala ematen zaie agiri bidez, bai finantzen aldetik, bai kontabilitatearen aldetik azalduta egoten dena*", baita horrela ere:



“*Euskal Autonomia Erkidegoko baliabideak ondo administratzen diren kontrolatzeko tresna*”.

Horrenbestez, aurrekontuen legearen izapidetze arrunta egiteaz gain, haren eduki zehatz bakoitza onesteko aukera ematen duen eskumena izango da gastua sortzen duen jarduerari dagokion eskumen zehatza, edo legearen eduki artikulatuari dagokion gai zehatza, edozein izanik ere: haren autoantolaketa, funtzio publiko propioa, ondare autonomikoa, gizarte-urgazpena, kultura, sektore publiko propioa, sustapen eta garapen ekonomikoa, industria, hirigintza eta etxebizitza, eta abar.

Aurrekontu orokorren osaera zehaztu ondoren, bada, edukiari lege-estaldura emateko beharrezana sortzen da, eta horretara dator, hasiera batean behintzat, Aurrekontu Orokorren Legea, horixe baita Euskadiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen.

Halaber, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 6.2 artikulua Euskadiko Aurrekontu Orokorren legeei esleitzen die ahalmen hau: «*berez Euskadiko Ogasun Nagusiari dagozkion edo ogasun horrekin zerikusia daukaten beste gai batzuk ere arau ditzakete haraino zabaldua, esate baterako: langileen ordainsarien errejimena eta aurrekontu orokorren barruko kredituei dagozkien alokairu pasiboen errejimena; aurrekontu-errejimena eta aurrekontu horietako gastu publikoa exekutatzeko errejimena; berez autonomia-erkidegoarenak diren tributuen errejimena; eta zorpetzeko baldintzen errejimena*». Eta aurreikuspen hori zabalik utzi beharra dago, beste xedapen batzuetatik zer igorriko kontuan izanda eta gizarte eta ekonomiaren esparruan ageri diren gorabehera ezberdinak kontuan izanda.

2024ko urriaren 10ean, Ogasun eta Finantza Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak, txosten-eskaera bat aurkeztu zuen Batzorde honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legearen aurreproiektuari buruzko txostena eskatuz.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetu da espedientea (erreferentzia: DNCG_LEY_4685/24_04).

II. – AURRETIAZ KONTUAN HARTZEKOAK. TXOSTENA EGITEKO ESKUMENA.



Hasteko, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 3. artikuluko 1. apartatuak xedatzen duenez, “xedapen orokor arauemaileak dira, edozein gairen gainekoak izanik ere, legearen, legegintzako dekretuaren, dekretuaren edo aginduaren forma hartzen dutenak, eta antolamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkaten eta zehaztutako edo zehaztu gabeko epe baterako mota askotako egintzen oinarri diren xedapenak”.

Halaber, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eskumena du aipatutako arauaren aurreproiektuari buruzko txostena egiteko; izan ere, horrek eragina du kontratazio publikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan xedatutakoari jarraikiz.

“27. artikulua.– Aholkularitza-eginkizunak.

Aholkularitza-eginkizuna betetzean, hauek egitea dagokio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

a) Hauei buruz nahitaez informatzea:

1.- Kontratazio publikoaren alorreko edo haren eremuan eragiten dutenei buruzko xedapen orokorren proiektuak edo aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluak edo hango sailburuek onartu beharrekoak.”

Kontratazio publikoaren eremuan eragiten duen lege-aurreproiektua denez, txosten hau onartzeko eskumena Aholku Batzordearen Osoko Bilkurak dauka, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua arabera.

III. – EDUKIA.

Aurrekontuen legearen aurreproiektuak bost titulu, 41 artikulua, hamasei xedapen gehigarri, bost azken xedapen eta testu artikulatuaren osagarri diren lau eranskin dauzka. Aurreproiektuaren egitura aurreko ekitaldietako aurrekontu-legeek zeukatenaren berdina da.



Jarraian, lege-proiektuan kontratazio publikoari buruz hitz egiten duen artikulua ekarri da:

“39. artikulua. Kontratatzeko arauak:

- 1. Kontratazioaren arloan, Gobernu Kontseiluari egokituko zaio aurreko artikuluko 1. paragrafoan adierazitako zenbatekoaren gainetik dagoen aurrekontua duten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren, organismo autonomoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoen kontratuak eta esparru-akordioak baimentzea. Kasu horretan, kontratu eta esparru-akordioak baimentzearekin batera, gastua ere baimenduko da, baita pleguetan aurreikusitako aldaketei eta luzapenei dagokiena ere. Gobernu Kontseiluak kontratu bat egiteko baimena ematen duenean, kontratu horren aldaketak ere baimendu beharko ditu, baldin eta, aldaketa horiek pleguan aurreikusita egon ez arren, banaka edo batera hartuta, kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko hamarretik gorakoak badira, BEZik gabe; halaber, kontratua suntsiarazteko baimena ere eman beharko du, hala badagokio.*
- 2. Esparru-akordioak baimentzeak berekin ekarriko du akordio horietatik eratorri eta aurreko artikuluko 1. paragrafoan azaldutako zenbatekoaren gainetik dauden kontratuak baimentzea ere.*
- 3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren sektore publikoa osatzen duten entitateetako kontratazio-organismoek izapidetzen dituzten kontratuak suntsiarazteko prozedurak gehienez zortzi hilabeteko epean izapidetu, ebatzi eta jakinarazi beharko dira. Era berean, epe hori aplikatuko zaie Euskal Autonomia Erkidegoko toki- eta foru-entitateetako kontratazio-organismoek, haien sektore publikoek eta Euskal Herriko Unibertsitateak izapidetzen dituzten kontratuak suntsiarazteko prozedurei”.*

IV.- GOGOETA JURIDIKOAK.

Lehenengo eta behin, adierazi behar da 39. artikuluko hori aurreproiektuaren IV. tituluaren barruan dagoela, eta kontratazio-araubideari buruzko alderdiak arautzen dituela. Gai hori ere bada Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari dagokion gai bat, eta Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak helburutzat har dezake.

Horrela, gure autonomia-erkidegoaren eremuan, hauxe da administrazio publikoen kontratuen alorrean indarrean dagoen araua: 116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoa. Dekretu horren 3. artikuluan, Administrazio Orokorraren eta erakunde autonomoen eta partzuergoen kontratuei eta esparru-akordioei dagozkien zenbateko espezifikoak ezartzen



dira, gastua baimentzeko ezarritako parametro berberetan, eta Gobernu Kontseiluaren baimena izan behar dute.

Era berean, lege-aurreproiektuak aurreikusten du Gobernu Kontseiluak kontratu bat egiteko baimena ematen duenean, kontratu horren aldaketak ere baimendu beharko dituela, baldin eta, aldaketa horiek pleguan aurreikusita egon ez arren, banaka edo batera hartuta, kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko hamarretik gorakoak badira, BEZik gabe; halaber, kontratua suntsiarazteko baimena ere eman beharko du, hala badagokio. Hori guztia azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 324. artikuluan 4. apartatuan ezarritakora egokitzeko (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).

Aurreproiektuak, halaber, gehienez zortzi hilabeteko epea ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren sektore publikoa osatzen duten entitateetako kontratazio-organismoek izapidetzen dituzten kontratuak suntsiarazteko prozedurak izapidetu, ebatzi eta jakinarazteko, eta, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko foru- eta toki-entitateei, haien sektore publikoei eta Euskal Herriko Unibertsitateari dagokienez ere epe hori aplikatu behar zaiela ezartzen du. Aurreikuspen hori sartu da iraungipen-epe espezifiko bat ezarri behar delako prozedura mota horietarako.

Gauzak horrela, eztabaida bat sortu da kontratuak suntsiarazteko gehieneko epeari buruz. Izan ere, batetik, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 212. artikuluan 8. apartatuak dio gehienez zortzi hilabeteko epean izapidetu eta ebatzi behar direla kontratuak suntsiarazteko espedienteak, eta, bestetik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan 3. apartatuak hiru hilabeteko epea ezartzen du, prozedurei dagozkien arauak gehieneko eperik ezartzen ez dutenean.

Gai hori Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 18ko 68/2021 Epaiak joratu zuen, Aragoiko Autonomia Erkidegoko Gobernuak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen aurka jarritako konstituzio-kontraktasuneko errekurtsioan. Izan ere, eskumenen konstituzio-ordenaren aurkakotzat jo zuen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 212.8 artikulua, zeinak, oinarritzko izaerarekin, gehienez zortzi hilabeteko epea ezartzen baitzuen



kontratuak suntsiarazteko espedienteak izapidetu eta ebazteko. Era berean, ez zuen deuseztat jo, Estatuko Administrazio Orokorraren eremuan aplikatzekoa izaten jarraitzen zuelako, eta hori, deklarazio haren ondorioa delako ez zaiela aplikatuko autonomia-erkidegoetako administrazioek, toki-korporazioek eta haiei lotutako entitateek sinatutako kontratuei.

Bada, erabaki judizial horrek hau dakar berekin:

- Lehenik, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 212.8 artikulua ez du oinarrizko izaerarik, eta Estatuko Administrazio Orokorrean zuzenean aplikatzekoa da; beraz, autonomia-erkidegoek eta toki-entitateek aplikatu beharreko oinarrizko araudira jo behar dute, hau da, 39/2015 Legearen 21.3 artikuluan aipatzen den hiru hilabeteko epea aplikatu behar dute.
- Bigarrenik, autonomia-erkidegoek ordeztu egin ahal izango dute oinarrizko arauak horri buruz ezartzen duen epea (hau da, 39/2015 Legearen 21.3 artikulua ezartzen duena), erregulazio autonomiko propioa garatuz.

Ondoren, Auzitegi Goreneko 3. Salak, 2024ko urtarrilaren 29ko epaian, “kontratuak suntsiarazteko prozedurak prozedura autonomoak direla” adierazi zuen. Ildo horretan, kontratuak suntsiarazteko prozedurak izapidetu eta ebazteko iraungitze-epe espezifikorik ezartzen duen lege-aurreikuspenik ezean, hau ezartzen du epaiak: “39/2015 Legearen 21.3 artikuluan aurreikusten den hiru hilabeteko epea aplikatu behar zen”. Horren ondorioz, Estatukoak ez diren eremuetan, hiru hilabetera murrizten da kontratuak suntsiarazteko prozedurak ebatzi eta jakinarazteko epea, eta horrek ondorio kaltegarriak eragiten ditu, hainbat izapide egin behar direlako izapidea behar bezala gauzatzeko; gainera, eztabaida sortu ohi da horrelako prozeduretan, ekar ditzakeen ondorioen eraginez.

Hori guztia dela eta, horri buruzko aurreikuspen bat sartu da aurrekontuen legearen proiektuan eta, horrela, bete egiten da Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan kontratuak suntsiarazteko prozedurak ebatzi eta jakinarazteko epeari dagokionez egon den arau-hutsunea. Batzorde honek positibotzat jotzen du aurreikuspen hori, segurtasun juridiko handiagoa ematen baitio kontratu publikoen suntsiarazpenari.

V.- ONDORIOAK.



Adierazitako guztia kontuan hartuta, ondoriozta daiteke zuzena eta egokia dela Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren lege-proiektuan emandako tratamendua, eta, beraz, ez zaio eragozpenik jartzen aztertutako testuari, eta aldeko txostena ematen zaio.